

ERIOZEA



Laburrak dira gizonaren egunak, Zuk daukazu
Zenbaturik bere illabeteen lumeroa. Job. XIV kap-an.

Ikusiten dot, nik eguzkitan nabillanean,
Neugaz batera, doiala neure kerizea;
Nondik igaro, egiñ dan baña, keriza ori,
Ez da gertatu markarik inoz ikustea.

Chiminiatik ikusi oi dot boladan keia,
Zelan lenengo indar andiaz dan urteten;
Baña puska bat igo orduko ezer ezera,
Edo utsera dala guztia biurtuten.

Kandelacho bat, bere dakust nik isiotzean,
Gela bat zabal, izana gaitik argituten;
Eta arnasa batek zelan jo, beingo batean,
Kandela itsu, eta gelea illun jarten.

Eta azkenez, ontzia dakust uren gañetik,
Iragotean zelan arraya daben isten;
Baita bertatik, urak leunduta arraya ori,
Ezercho izan ez balitz legez geldituten.

Modu berean edo antzera ¿ez da gertatzen,
Gure biziak ontzi bat legez ez dirudi?
¿Ill zan askoren markarik emen luzarorako,
Non ikusten da? non billatuten? non agiri?

¿Zer jazoten da gorputzak daukan al izateaz?
 Illten danean osoro ez da akabetan?
 Kandelacho bat aiše puskatek jotean legez,
 Gach chiki batek ez dau guztia amatetan?

Bestetan ¿zer da nire Anjelaz gertatu dana?
 Bere oñatzak ez doaz desa-gertutera?
 Ke moltsocho bat, desegin oi dan legeche bardin,
 Ezer ezean ez doa dana geratzera?

Nire emazte izan zanagaz, badakit ondo,
 Iya ez dala gaur batcho bere gomutetan;
 Kerizearen antzera bardin, bere izatea,
 Lur onetatik irago eta ¡bai! aztu zan!

Ni neu bakarrik, zuzenduten naz bere obira,
 Neuri bakarrik, gogotik echat al denduten;
 Nik neuk errezau egiñagaitik bere alboan,
 ¡Ai! arek baña, berbarik ez deust eranzuten.

¿Zer da gaur berak arturik daukan isilltasuna?
 ¿Zergaitik ez dau mizti bat bere bada egiten?
 ¿Zergaitik dago ipiñi eben lekuan geldi,
 Oetik zana gois guztietan len jagiten?

¿Ze sentimentu ete dau oraiñ artu nigaitik?
 ¿Zergaitik nire berbai ez deutse jaramoten?
 Iñoz tristerik, eta muturik nengoanean,
 Berba eustanak nai eta nai ez eragiten?

¿Zelako loa ete da bera artu dabena?
 Iya ainbeste illabetetan irauteko?
 Bederatzi ta egunak bere irago arren,
 Esnatuteko señale baga jarraitzeko?

¡O! ze gogor ta ze otso-biotz Eriotzea!
 Azan, jarteko orrelan nire emaztea;

¿Zergaitik eutsan ik orri aren goiŕetik kendu,
Niretzat falta egiten eutsan bizitzea?

I, gaitik jagok taya tristera gaur etorrita,
I, gaitik mamin guztiak iya usteldurik;
Azurrok bere denporaz igar jarriko dozak,
Gero austuta lurragaz danak bat egiñik.

¡Agura zital arriak baño arriagoa!
Abelegandik asi intzana gerra gintzan;
¿Noz aspertuta, gogait egiñik ichiko deutsak,
Eu noz illgo az ill baga bizi gu gaitzezan?

¡A! bajakiati, ez azala sekula illgo,
Iñor bizirik munduan badok aurkietan;
Arboletatik orriak bera datozan legez,
Zelan jausiko garean ire sareetan.

Danok guztiok, bear juogu chiki ta andi,
Aita Santua,naiz Erregea izan arren;
Naiz jakituna, zein ezjakiña, eder ta ezaiñ,
Ire atzamar zorrotzetara danok emen.

Ez dago emen danoentzako, bide bat baño,
Ez da izan ta besterik bere ez izango;
Asmo barriak atera arren gizonak asko,
Illtetik zelan librau ez dabe aterako.

Asmau begie ibillitea uren barrutik,
Asmau begie zelan ibilli iya aidean;
Baña, ez dabe iñoz asmauko zelan bizia,
Gorde eragin gura dan arte gorputzean.

Jayotea da utsik naikoa, eta guraiña,
Eriotzeak euki dagian laster nor ill;
Zuzi sutuak nai badau beti argiten bizi,
Itsu zoro ta buru bagea legez dabill.

Mendietako errekachorik ez da gelditzen,
 Ichasoaren kolkoan sartu arteraño;
 Jayorik bere ez da gelditu, ez geldituko,
 Lurrera jausi egin bagarik egundaño.

Arriak beruntz egiten dabe garayetatik,
 Lurrinak doaz zakonetatik zeruruntza;
 Eta gizona sortuagaz bat abietan da,
 Nai eta nai ez bere azken ta amairuntza.

¡Eriotzea! eriotzea! danen azkena,
 Eriotzeak, irunsten gaitu danok bardiñ;
 Errazago da legoetzar bat birrindutea,
 Eriotzatic librau baño, ta iges egiñ.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1894-ko Zemendiko illean.

INVESTIGACIONES HISTÓRICAS

De la Memoria presentada á la Diputación por la comisión provincial, entresacamos los siguientes párrafos, que denotan el interés con que prosigue dicha corporación las investigaciones históricas emprendidas por el ilustrado escritor Sr. Echegaray, y el arreglo de los archivos municipales de la Provincia, trabajo encomendado al activo archivero Sr. Múgica:

«No ha descuidado la Comisión provincial—dice—cuanto se refiere á impulsar los estudios históricos relativos á Guipúzcoa.

El Sr. Echegaray, acerca de cuyo libro de *Investigaciones* ha informado ya la Real Academia de la Historia, alabando en términos muy expresivos, el apoyo que la Diputación presta á esta clase de trabajos,